

PERTSONA ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK:

- **Berdintasuna eta eraginkortasuna.** Bikote barruko gatazka dauden edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakume guztiek udal titulartasuneko zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, legeak ezarritako moduan, egoera zibilagatiko bereizketarik gabe, ezta sexu-joeragatik, adinagatik, sinesmen zein ideologiagatik, gutxiengo etniko, nazional edo hizkuntza-hiztunen gutxiengoko kidea izateagatik, maila ekonomikoagatik, elbarritasun zein ezintasun fisiko, psikiko nahiz sentsorialagatik edo bestelako baldintza pertsonal zein sozialengatik inolako bereizketarik gabe.
- **Salaketa jarri zein babes-aginduaren, aholkularitza juridikoaren, laguntza psikologikoaren, harrera eta egoitzako baliabideen, izaera orokorreko zein bereziko laguntza ekonomikoen, prestakuntza eta laneratzeko baliabideen, babestutako etxebizitza edukitzeko programaren eta menpeko pertsonentzako baliabide berezien eskaera egin izanari buruzko informazio ulergarria jasotzea.**
- **Salaketa aurkeztu zein babes-aginduaren eskaera egin nahi izanez gero, berehalako arreta jasotzea.** Besteak beste, zerbitzu hauek berehala jasota:
 - Salaketa aurkezteko doako laguntza juridikoa jasotzea.
 - Epaiketak dirauen bitartean, doako laguntza juridikoa jasotzea.
 - Baliabide erabilgarrietara joateko proposamena jasotzea.
 - Beharrezkoa izanez gero, osasun-zerbitzuetara lagundua izatea.
 - Segurtasun-neurrien bidez babesa jasotzea, Segurtasun Sailak arriskua egon daitekeela uste duenean.
- **Presa handiko gizarte-urgazpena jasotzea,** gizarte-zerbitzuen prestazioak barne eta, balorazio positiboa eginez gero, aldi baterako ostatura ere bai, azken honen barruan egonik ostatura eramatea ere.
- Balorazio positiboa eginez gero, **aldi baterako egoitzako baliabidea edukitzea.** Horrek berekin dakar eskubide hauek bermatzea:
 - Etxebizitzan dagon bitartean, gizarte eta hezkuntza-arloko laguntza (gizarte-trebetasunak, erakundeekiko harremanetan lagun egitea) jasotzeko eskubidea.
 - Familia unitateko kide guztiek elkarrekin jarraitzeko eskubidea.
 - Beharrak ebaluatzeko arduradun profesional erreferentziako bat edukitzeko eskubidea.
- **Laguntza juridiko espezializatua jasotzea,** baliabide ekonomiko nahikorik eduki ezean.
- **Laguntza psikoterapeutiko espezializatua jasotzea.**
- **Gizarte babes integrala jasotzea,** genero-indarkeriaren biktima den emakumearen pentzuan dauden adingabeentzat.
- **Prestazio ekonomikoak jasotzea,** indarrean dauden legeekin bat datozen zenbatekoetakoak.

GENERO INDARKERIARI BURUZKO ZERBITZUEN AGIRIA

- **Lagun egitea**, laneratzeko eta etxebizitza bilatzeko ibilbideetan.

BETEBEHARRAK:

- Norberari, familiari eta egoera ekonomikoari buruz **beharrezko informazio benetakoa ematea erreferentziako profesionalari**, eta behin datuak herri-administrazioen esku egonez gero, horietan gertatzen diren aldaketen berri ere ematea (12/2008 Legearen 10.1b art.).
- Laguntza emateko kontuan hartutako **baldintzetan gertatutako aldaketen berri ematea**, gertatu eta berehala.
- **Poliziaren diligentziak tramitatzen eta** bere edo bere pentzuan dituen eta arriskuan dauden pertsonen **segurtasunerako neurriak hartzen laguntzea**.
- Udaleko zerbitzuetako **pertsonal teknikoari laguntzea**.
- Adingabeekin esku hartuz gero, ezarritako **esku-hartze plana betetzea**.
- **Aldi baterako egoitzetako eta harrerako baliabideetan sartzearen ondoriozko betebeharrak:**
 - Eskabidea sinatzea eta erabiltzen dituzten prestazioen eta zerbitzuen funtzionamendu eta antolaketa-arauak ezagutu eta betetzea, eta, hala badagokio, baita horien barruan indarrean diren elkarbizitza-arauak ere (10.1e art.).
 - Gizarte-zerbitzuek eskatutako dokumentazioa epe egokian aurkeztea.
 - Haren pentzuan dauden pertsonen zaintzaren erantzulea izatea.
 - Baliabidean kideak dituen pertsonen pentsamendu, erlijio eta bestelako askatasuna errespetatzea.
 - Baliabidearen erantzulea den entitateak erabakitako neurriak betetzea.
 - Helbidea eta telefono-zenbakia ezagutzera ez ematea, eta erreferentzia gisa, sailaren edo zerbitzuaren helbidea ematea.
 - Objektuak eta ekipamenduak behar bezala erabiltzea.
 - Axolagabekeriak eragindako kalteengatik erantzutea.
 - Harrerakoak ez diren pertsonen sartzen ez uztea.
 - Gizarte-zerbitzuek egindako plan indibiduala edo familiaren plana betetzea.
 - Egoitza edo harrerako baliabideak uztea aurreikusitako epeak bete direnean edo horretako arrazoiak egonez gero.
- **Jasotako laguntza ekonomikoak aurreikusitako helburuetarako erabiltzea** eta **15 eguneko epean** horiek ematea justifikatu zuten baldintzetan **gertatutako aldaketen berri ematea**.
- Egoitza-baliabideen **mantentze-gastuak ordaintzen laguntzea**, gehienez ere diru-sarreraren % 20ren ekarpena eginda.